

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'Vitoria, 3 marzo', gaurtik Biterin

Gaur hasi eta astelehenera bitarte Vitoria, 3 de marzo pelikula egongo da ikusgai Biterin, gaur, 22:30etan. ||

■ GOIZUETA BATZARRA

Herri batzarra gaur, eskolan

Gaur herri batzarra egingo da Goizuetan legealdiaren balorazioa egiteko, 18:30etan, eskolako jangelan. ||

■ ASTIGARRAGA MUNDARRO

Mendi irteerako bilera, gaur

Maiatzaren 18 eta 19rako mendi irteera antolatuta du Mundarrok eta izena eman dutenek bilerara daude deituak kiroldegian. Irteeraren xehetasunak azalduko dituzte 16:00etatik aurrera. ||

■ HERNANI GAZTETXEA

Harrera Sarearen festa bihar

Harrera Sarearen festa egongo da bihar, 20:00etan hasita, Kontrakantxa Gaztetxean. Talde desberdinak, lau guztira, ariko dira. ||

■ HERNANI EH BILDU

Gaurko argazki masiborako deia

EH Bilduk deialdia luzatu die kide eta zaleei, 19:30etan, Zinkoenean argazki berezi eta jendetsu bat ateratzeko. ||

■ HERNANI PRESOKA

Enkartelada, gaur plazan

Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek enkarteladara deitu dute gaur Plazan 20:00etan hasita. ||

■ ASTIGARRAGA ANTZERKIA

'Kontukantari' gaur, kultur etxean

Antzerki eta musika saio berezia izango da gaur, 15:00etan. Kontukantari emanaldia kultur etxean, Herri Eskolako 2 eta 3 urteko haurrentzat da. ||

■ HERNANI LABURMETRAIAK

'Hedatuz' laburretan, gaixotasunen berri

Lau laburmetrai eskainiko dira, 19:00etatik aurrera, gaur Biterin; Bizibide, Bihotzez, AGISAS eta AGIAC elkarteen lanak ezagutzeko. Elkarteei buruzko erreportajeak ere jarriko dituzte.

BIZIBIDE, Bihotzez, AGISAS eta AGIAC elkarteen lana ezagutzera emango da gaur, Biterin, 19:00etan, lau laburmetraien emanaldiarekin, Hedatuz proiektuaren barruan.

El vuelo de las mariposas; Inténtalo, todo es posible; Tocados por el corazón; eta La familia, lo primero dira eskainiko diren lau proiektzioak. Horietan, elkarteetako kideak eta boluntarioak dira protagonista, eta filmetako bitan,

Oscar Terol eta Alazne Etxeberria aktoreek ere kolaboratu dute.

Lau filmez gain, Bihotzez eta AGIAC elkarteei buruzko erreportajeak ere jarriko dituzte. Guztietan, euskerazko azpitoluak eta gorrentzako keinu hizkuntza txertatu dituzte.

Egunerokoa gaixotasun hauen eraginak jasaten dituztenak dira laburmetraien protagonista eta erakutsi nahi da

zein zailtasun dituzten sozializatzeko.

Saiora koloniak, lozioak... ez emateko deia

Saioa doakoa eta irekia izango da, aretoa bete arte. Baina bertaratu direnei, eskatu diete ez emateko koloniarik, perfumerik, loziorik edo usaina daukan beste produkturik. Izan ere, sentsibilitate kimiko anitza daukaten pertsonak egongo dira bertan, eta arazo

larriak eragiten dizkiete.

Gipuzkoako fibromialgia eta neke kroniko sindromearen elkarrekin da Bizibide;ardiopatiak dituzten haurren familien elkarrekin Bihotzez; Gipuzkoako antikoagulatuen elkarrekin AGIAC; eta AGISAS gizarte integratzaile gizarte eta kultur animatzaileen elkarrekin.

Guztiekin emango dute gaur, modu zabalagoan, egiten duten lanaren berri. ||

■ HERNANI PALA

Hernanik Aian hasiko du gaur Herriartekoa

Gomazko paletan Herriartekoa gaur hasiko du Aian joanekoa, 20:00etan, hiru partidekin. Itzulerakoak datorren astean jokatu dira Hernanin. Ereñotzun jokatu da bihar Eskolartekoa.

PASA den urtean hasi zen gomazko paletan Herriarteko Txapelketa jokatzeko eta aurreko bigarren edizioan ere Hernanik izango du ordezkaria. Lehenengo kanporaketako joanekoa gaur hasiko dute Aian eta itzulerako Hernaniko kiroldegiko frontoian jokatu da, maiatzaren 17an, ostiralez.

Jardunaldiko hiru partidu jokatu dira eta lehendabizikoa 20:00etan hasiko da Aiako frontoian nagusian. Hernaniko taldea ondorengo palistek osatzen dute: Arregi, Urreaga, Kerejeta, Zubimendi, Manterola, Lujanbio eta Arandiak.

Oraindik ere erabakitze dute taldeko hautatzaileek nork zer modalitateetan jokatu. Hiru modalitateak ondorengoak dira: banaka frontoi

osoan, binakaka frontoi osoan ondoren eta bukatzeko banaka, baina zazpi terdiaren barruan.

Eskolarteko finalean bi talde hernaniar

Bestetik, Ereñotzuko frontoian Gipuzkoako Eskolarteko finalak jokatu dira alebin eta infantil mailetan. Gainera, azken hamar urteetan, Hernaniko bi talde lehiatuko dira lehenengo aldiz nesken infantil mailako finalean. Bihar jokatu dira hiru final. Lehendabizikoa 16:00etan hasiko da, alebin mutiletan, 16:00etan, Zumaia 2 eta Aia 2 ren artean. Bigarren finala alebin nesketan, 16:30etan, Aduna 1 eta Zumaia 1en aurka. Eta hernaniarren arteko finala 17:00etan hasiko da. ||



Hernanik garaipena ziurtatuta du eskolartekoan.

Zorionak Carlos!

60 urte

Mixu handi bat etxekoan partez!

TILIN * TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK

943 55 56 94

Txirita, 10 - HERNANI

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa. 943 33 10 20

www.funerarioorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

Hernani Andoain Astigarraga Urnieta Goizueta



GAUR Zerua lainotuta egongo da, baina giroa epelagoa izango da. Euri arina egin dezake goizez. Arratsaldean zaparradak tartekatuagoak izango dira baina mardulak izan daitezke, bereziki ekialdean. **Min.12° / Max.22°**



BIHAR Lainoak gailenduko dira eta, egunaren lehen zatian batez ere, euria ere egingo du. Egunak aurrera egin ahala, ordea, hobera egingo du; atertza egin eta hodeitza saretz joango da. **Min.12° / Max.18°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI EUSKAL SAGARDOA



Sagardogile eta tabernariak Atxurren elkartu ziren 'Uztaberri Eguna' eta pintxo potea aurkezteko.

Euskal Sagardoaren 2018ko uzta botilan dastatzeko aukera

Euskal Sagardoak 'Uztaberri Eguna' egingo du Atsegindegian maiatzaren 18an, botilan, 2018ko uzta jendaurrean aurkezteko.

EUSKAL Sagardoa Jatorri Deiturako 2018ko uzta botilan dastatzeko aukera izango da maiatzaren 18an, larunbata, *Uztaberri Egunean*. Hernaniko Atsegindegi plazan egingo da ekitaldia 18:00etatik 21:00-etara eta bertan 15 sagardotegiren sagardo berriak dastatzeko aukera izango da.

Plaza irekian egingo den Uzta Berriaren lehen aurkezpena izango da eta orain arteko dastatzeekin zenbait berezitasun izango ditu, besteak beste sagardo kopan dastatuko dituela inguratzen denak, baina horrez gain, dastatze gidatuak ere izango direla inguratzen direnentzat. Dastatzeak dirauen denboran Mikel Garaizabal enologoa dastatze espresak ematen ariko da Atsegindegian bertan eta sagardoa dastatzeaz gain, sagardoa erosteko aukera ere izango dute bertaratzen direnek. Horrez gain, pintxoak ere

izango dira eta festa girotua egongo da.

Goiza profesionalen zuzendua

Uztaberri Egunean ostalaritzako profesionalen eta elkarte gastronomikoetako arduradunen zuzendutako ekintzak ere izango dira. Hain zuzen ere goizeko 11:30etan, Euskal Sagardoarekin hamaiketako izango dute inguratzen diren ostalari eta elkarte gastronomikoen, Mikel Garaizabalek zuzenduta. Jardunaldi honen helburua da, Euskal Sagardoak ostalaritzari eskaintzen dizkion aukera eta argudioak azaltzea eta ostalariek Euskal Sagardo desberdinak dastatu ahal izatea.

Euskal pintxo potea aste osoan zehar Hernaniko tabernetan

*Uztaberri Eguna*ren bueltan Euskal Pintxo potea izango da

EGITARAUA

- 18:00-21:00 Euskal Sagardoaren 2018 Uztaren aurkezpena. Honako sagardotegiek: Akarregi (Hernani), Alizueta (Hernani), Iparragirre (Hernani), Itxasburu (Hernani), Rufino (Hernani), Alberro (Hernani), Otsua Enea (Hernani), Zelaia (Hernani), Aburuza (Aduna), Axpe (Markina-Xemein), Gurutzeta (Astigarraga), Isastegi (Tolosa), Lizeaga (Astigarraga), Zapiain (Astigarraga) eta Petritegi (Astigarraga).
- Hauek dira tabernak eta pintxoaren izenak: Apeadero, Gaztagardo, Aralar, Elurra, Arri, AHA, Atxur, Txapela, Ekos, Taki-taki, Garin, Piolin, Guria, Gaztagi, Harresi, Idiazabalbardau, Joxe Mari, Trufa de Idiazabal, Kixkal, Legazpi, Otaegi, Bizar Zuri eta Tripontzi, Artzai.

aste osoan zehar Hernaniko tabernetan. Maiatzaren 13tik 17ra Euskal Sagardoa eta Idiazabal gazta duen pintxo bat eskainiko dute Hernaniko 12 tabernekin. Kontsumitzaileek 2 euroan izango dute pintxo potea. ||

HERNANI MUSIKA

Eneko Sotak hiru sari, Lleidan

Lleidan izan zen Eneko Sota Zabaleta hermaniarra, aurreko larunbatean, Cerverako I. Akordeo Lehaketan. Eta hiru sarirekin bueltatu zen handik: teknika onenari saria, programa originalenari saria, eta bigarren sari orokorra. Soinu-teknikari bezala aritu zen, Zero Setteren kontzertuan; eta solista gisa gero, Illumbek akordeo orkestrarekin. ||



Eneko Sota, erdian bizkarrez, akordeoia jotzen, ikusle askoren aurrean.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JOSE RAMON ZABALA SAROBE

Herenegun hil zen, 63 urte zituela

- Goian Bego -

Emaztea: Idoia Oyarzabal; gurasoak: Segundo (+) eta Ana Maria; ezkon gurasoak: Jose Cruz (+) eta Iñaki, anai-arrebak: Maria Aranzazu, Miguel Angel eta Maria Rosario; ezkon anai-arrebak: Karmen Oyarzabal, Gema Oyarzabal eta Iñaki Otegi; ilobak: Ixiar, Maialen eta Lorea; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.



Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko maiatzaren 10ean

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 16:15ak arte.

† FABIAN DE ARRIBA VAQUERO

Atzo hil zen, 50 urte zituela

- Goian Bego -

Gure bihotzean eramango zaitugu beti.

Alabak: Itsasne eta Iratxe; gurasoak: Gabriel eta Mercedes (+); ahizpa: Maria Jose; lehengusuak eta gainerako ahaideek.



Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko maiatzaren 10ean

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 18:00ak arte.

JOSE MIGUEL ANDUEZA VALLE

(Feli dekorazioa)

Besarkada bat familiari.



Hernanin, 2019ko maiatzaren 10ean

JOSE MIGUEL ANDUEZA VALLE

Beti egongo zara gurekin.

ZURE LAGUNAK



Hernanin, 2019ko maiatzaren 10ean

† ESKERTZA JUAN URRUZOLA AGIRRE

Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -

Juanen emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.



ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2019ko maiatzaren 10ean

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko erdigunean; 2 gela, sukalde, sala eta komuna. Egoera onean.
Deitu: 628 116 949

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)